


BALOREZKO PROPOSAMENA


▪ Zer behar edo arazo konpontzen da gure proiektuarekin?

- Gure produktu guztiak inbertsioak direnez, energia elektrikoaren kostu handiak murrizten ditu. Baita, energia berriztaezinarekiko dugun menpekotasuna murrizten laguntzen du. Hauek dira eskaintzen ditugun produktuak:
 - Tutuerietan jarriko dugun mekanismoa:
 - Tutuerietatik igarotzen den uraren indarra erabiliko dugu energia elektrikoa sortzeko.
 - Beraz, energia zinetikoa energia elektriko bihurtuko da.
 - Horretarako, tutueria printzipal batetik beste tutueria bat aterako da:
 - Tutueria batetik substantzia likidoak joango dira. Hemen turbina jarriko dugu eta iragazki bat edukiko du turbinari oztopatu edo kalte egin ahalko dieten partikula solidoak ez pasatzeko. Gainera, tutueria estutzen joango da turbinak mugitu beharreko substantziak indar handiagoa izateko.
 - Beste tutueriatik substantzia likidoak pasatuko dira egon daitezken partikula solidoekin.
 - Turbina ardatz horizontal baten bidez sorgailuari konektatuta egongo da. Sorgailuak turbinatik jasotako energia zinetikoa, elektriko bihurtuko du. Elektrizitatea bezeroak nahi duen tokian jarritako bateria batean pilatuko da eta bateria horretatik elektrizitatea nahi duenerako erabiliko du.



○ Autoetan jarriko dugun mekanismoa:


- Auto elektrikoek duten erabilera handituko da jarriko dugun mekanismoa erabiliz, honen bidez autokargatu egingo direlako.
- Gainera, planeta gutxiago kutsatzen lagunduko du.
- Bigarren argazkian agertzen den bezala, gurpilei hauen mugimendu zirkularrekin batera birak ematen dituen ardatza itsatsi zaie.
- Ardatz honek hortzak (engranaiei ertzak) dituen engranaje tren (engranaiei segida) baten ondoan jarri, engranaiei mugimendua transmitituko die.
- Sorgailu baten bitartez energia zinetikoa elektrikoan transformatuko da. Energia hori baterian pilatuko da.




Engranaje tren [Sorgailua eta bateriarekiko lotura](#)

○ Soinu edo zarata uhinak aprobetxatuz energia elektriko sortzen duen mekanismoa:

- Inbertsio bat egiteko tresna eraginkor bat da, horren bitartez gure bezereok elektrizitatean kapital handia aurreztuko dutelako.
- Mekanismo honek soinu uhinak energia elektrikoan transformastuko ditu. Mekanismo hau, bere funtzionamenduari begira, hiru zatitan banatu dezakegu:
 - Belarriaren simulazioa: Entzuteko soinu-uhinak erabiltzen ditugu eta hauek tinpanoan bibratzea eragiten dute. Asmatutako mekanismo hau, soinu uhinak tinpanoaren antzeko ohol (grafenoazkoa izan daiteke) bateraino iritsiko dira eta honen mugimendua sortuko dute.



- Kremailera eta engranai trenari: Oholak kremailerari transmitituko dio mugimendua eta honek engranai trenari.
- Sorgailua eta bateria: Engranai trenaren azken engranaiak sorgailuari transmitituko dio energia zinetikoa eta honek energia zinetikoa elektrikoan transformatuko du. Azkenik elektrizitatea baterian pilatuko da.



- Enpreseentzako zerbitzua: Enpresei elektrizitatean gastuak murrizteko ideiak eskainiko dizkiegu, kontratu baten bidez.
- ✓ **Sorgailua**: Iman batez eta elektrizitatea ondo garraiatzen duen material batez eratuta dagoen bobina batez osatuta dago, adibidez kobrea. Imanak bobinaren gainean birak ematean, bobinaren materialaren elektroien mugimendua sortzen da, hau da, elektrizitatea.

▪ **Zer bereizten gaitu eta zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?**

- Gure proiektuak kontsumitzen diren garaietan, besteekiko desberdinak diren hainbat ezaugarri izango dituzte, baina nagusia, inbertsio bat bezala definitu daitekeela da, hau da, gure produktuak luzaroan kontsumitzen baldin badira errentagarria izaten bukatuko dute, gaur egun energia elektrikoan gastatzen dugun guztia aurrezten laguntzen dugulako eta ingurumeneari ez dutelako eragin txarrik sortzen.
- Lehiakideengandik bereiz gaitzeko faktoreak hauek izango lirateke:
 - Prestazioak, gure produktuek egunerokotasunean laguntza eskaintzen dutelako.
 - Argazkian agertzen den bezala, gobernuaren nahiekin bat datoz gure produktuen ekoizpena.



- Berritasuna, teknologiarekin lotura duelako.
 - Lana erraztea, edozer egitera zoazenean lagungarria izan daitezkeelako.
 - Arriskuen murrizketa, ingurumenaren kutsadura murrizten duelako eta azkenean horrek arriskuak gutxitzen dituelako.
 - Eskuragarritasuna, bezero guztiek eskuratu dezaketelako; segurtasuna.
 - Erabilerraztasuna, mekanismoa instalatuta egon ondoren erraz erabiltzen delako.
- **Gure balioa kualitatiboa ala kuantitatiboa da?**
- Gure produktuek duten balioa kuantitatiboa da, neurgarria delako, hau da, produktuen prezioa eta hauen bidez aurrezten dugun dirua neurtu daitezkeelako.
 - Gainera, gure produktuen balioa kualitatiboa ere da, mekanismo hauen bidez lortu nahi dugun helburua energia elektrikoarekiko dugun menpekotasuna murriztea delako.